

16. NAO - 2013ko urtarrilaren 24a

254. ALDIZKARIA - 2025eko abenduaren 23a

31. ORDENANTZA, BARAÑAINGO UDALAK ANTOLATU ETA UDAL TELEZENTROAN EGITEN DIREN PRESTAKUNTZAKO LANTEGIETAN IKASTEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOA ARAUTZEN DUENA

Oinarria

1. artikulua. Ordainarazpen hau ezarri da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen lehen tituluko III. kapituluko 2. azpiatalean xedatutakoaren arabera eta lege beraren 28. artikuluan jasotzen den baimenari jarraituz.

Zerga-egitatea

2. artikulua. Ordenantza honen zergapeko egintza da alderdi batek eskaturik egiten den udal jarduera, Barañaingo Udalak udal telezentroan antolatzen eta ematen dituen prestakuntza lantegietan matrikulatzeko eskariaren kariaz, betiere Barañaingo Udalak espresuki doakoak deklaritzen ez baditu.

Subjektu pasiboa

3. artikulua. Ordenantza honetan arautzen den prezio publikoa ordaintzera beharturik daude udal telezentroan egin behar diren prestakuntza ekintzetan parte hartzeko eskaera egiten duten pertsona fisiko edo juridikoak. Horretarako, dagokion matrikula formalizatu beharko dute, prestakuntza lantegiak haiei zuzenduta baitaude.

Tarifak

4. artikulua.

4.1.-Aplikatzeko diren tarifek zerbitzuaren zuzeneko kostua ordainduko dute gutxienez; alegia, irakaslearen edo zerbitzua ematen duen enpresaren kostua.

4.2.-Baldin eta ikasle kopurua ez bada zerbitzu zuzenaren kostua ordaintzeko adinakoa, ikastaroa hutsik geratuko da. Hala ere, ikastaroak multzoan harturik, horien zuzeneko kostua osorik berdintzen bada, zilegi izanen da kostura iristen ez diren ikastaroak antolatzea.

4.3.-Barañainen erroldaturik ez daudenak ikastaro eta lantegietan leku liberrik gelditzen bada baizik ez dira onartuko. Haiendako, ikastaro bakoitzaren prezioa gutxienez ere erroldatuena baino %50 gehiago izanen da, arestiko taularen arabera.

4.4.-Izena emateko epea bukatuta, eskaintako ikastaro edo lantegiren batean leku liberrik gelditzen bada, matrikula berriak ematen ahalko dira, betiere ikastaro guztia ordaintzen badute.

4.5.-Udal langileek ematen dituzten prestakuntza lantegien prezio publikoa ordenantza honen eranskinean agertzen dena izanen da.

Ordaindu beharra

5. artikulua. Prezio publikoa ordaindu beharra sortzen da ikastaroen eskaria egiten den unean, behar den matrikula formalizatuz kasuan kasuko lantegian.

Kudeaketako eta diru-bilketako arauak

6. artikulua. Prezio publikoak ordainduko dira ikastaroa edo jarduera antolatzeko oinarriek kasu bakoitzerako ezarritako moduan.

7. artikulua. Baldin, prezioa ordaintzera behartuta dagoenari leporatu ezin zaizkion arrazoiak direla eta, zerbitzua egiten ez bada, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio. Gainerakoetan ez da dirurik itzuliko.

8. artikulua. Hemen arautzen den prezio publikoa dela-eta zorrik baldin bada, horiek premiamenduzko administrazio prozeduraren bidez eskatzen ahalko dira, eta diru-bilketari buruz aplikatzen ahal zaion araudiari jarraikiz.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Ordenantza hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean eta sortuko ditu ondorio juridiko osoak.

2026EKO TARIFEN ERANSKINA

ORDENANTZA FISKALA, PREZIO PUBLIKOA ARAUTZEN DUENA BARAÑAINGO UDALAK ANTOLATU ETA UDAL TELEZENTROAN EGITEN DIREN PRESTAKUNTZAKO LANTEGIETAN IKASTEKO	2026KO TARIFAK	
	(eurotan)	
	Erroldatuak	Erroldatu gabeak
I. epigrafea.-Udal langileek ematen dituzten prestakuntza lantegiak		
Prestakuntza lantegi eta lagun bakoitzeko	11,30	17,40